

**Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1925'ko Azaroa'
ren 27'an.**

Aurko agerian aitatzen diran euskaltzain ta ordezkoak batzaraldian bildu dira: urgazletatik Bähr jauna.

I.—Zadorlariak iragari die beste euskaltzaiñai, oraintxe dala *Kisa*-aldatze garaya, lengotik bi urte igaro dira-ta. Bi urtetik bi urtera aldatu bear da *Kisa*-goa, ofela agintzen baidu araudiak.

Lenbizikotz, Euskaltzainburua aukeratu bear da: Autarkiak onela datoz: Azkue'k-9 utsean 1.

Iker-saileko burua aukeratu bear da urén ta autarkiak onela datoz:

Kanpion-8.

Urkijo -1.

Utsean -1.

Irugaréngotz Yaur-saileko burua bear da ta autarkiak onela datoz:

A. Intza'k-8.

Urkijo -1.

Utsean -1.

Laugaréngotz Zadorlariaren autarketa dator:

Intzagarai-9.

Eguskitza-1.

Diruzaitzarako: Altube'k 10 autarki izan ditu ta Lakonbe'k beste 10 Gutun-zaitzarako.

Kisagoa beaz onela dator:

Azkue jauna Euskaltzainburu.

Kanpion » Iker-saileko buru.

A. Intza » Yaur-saileko buru.

Intzagarai-Zadorlari.

Altube-Diruzai.

Lakonbe-Gutunzai.

II.—Azkue jaunak bi lan talde irakurri dizkigu: bata *garkizunak*: bestea *Lamiñak*.

III.—Bähr jaunak Gipuzkoa'n bildu dituen euskal-itx ederak irakurri dizkigu. Gogoz entzun dizkiogu ta euskal-itx oren zerenda gure *Euskera*'n argitaratuko da.

IV.—Azkenez, Euskaltzaindiak adierazoko die euskaltzale ta euskal-idazleai utsean dala Euskaltzaindiko alki bat, Karmelo Etxegarai jauna il dalako, nai duenak edo diña danak eskatu dezan, ontan Euskaltzaindiaren araudia zeazkiro jaraiturik.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzaraldia.

Bilbo'n, Aldundi-Jauregian, 1925'ko Lotazila'ren 22'an.

Euskaltzain abek bildu dira: Azkue, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intza, Lakonbe: euskaltzain-ordeko Oleaga ta Ormaetxea eta Odon Apraiz urgazlea.

Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—*Santuen bizitza laburak* deitzen dan liburua azaldu dala-ta, Bilbo'ko Egunari batek liburu oretzaz eman duen iritxia zabaldu dan ezkerok, Euskaltzaindiak beñiz eta beñiz aitortzen du, ez dituela beretzat artzen, bere ikurpen gabe letozken euskal-liburuak. Euskaltzaindiak begi onez ikusi du liburu oren agerketeta ta bere sorospidea ere garaiz eman zion; bañan liburu oren idazkera, itz-beñi ta gañerakotzaz ez du Euskaltzaindiak ezer ikustekorik ta ez du oraindik iritxirik abotu.

II.—Azkue jaunak irakurri digu *The Basque Dialect of Marquine* Willian Rollo Escoziar jaunak egin-